


Goierri tarra

334. zenbakia 2008ko urtarilak 25

Irene eta Ana Usabiaga Bi ahizpa txirrindulari



ALTAMIR/7
JATETXEA



Altamiran
sukaldaritza
maite dugu

Altamirako kirolgunea / Ordizia
T 685 794 755 / altamira@igeri.net



reklamo

berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
 Instalazio industrialak eta etxeokak, eguzki-energia.
 Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
 Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
 Tel.: 943 653 307
 Tel. / Fax: 943 650 520
 E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
 Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
 Fax: 943 675 421
 E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



POLIURETANOZKO LEIHOAK



Kursal
 ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51


Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN

- GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU ultrasoinuen bidez

NOBEDADEA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04

BERTSOTAN



Ainhoa Mujika

Genero indarkeria

20 urteko neska gazte bat
Tatiela zuen izena,
egunkariko portada egun
batez bahitu zuena.
Berri bat soilik da, baina hau da
gu hunkitzen gaituena.
Berri bat soilik da, baina hau da
gizartearen sistema.
Eguneroko zerbait bihurtu
dela da gertatzen dena.

“Berdinak omen gara guztiok”
erreza da esatea
“berdinak omen gara guztiok”
hain zaila da sinistea
bakoitza mundu desberdin bat da
normala da izatea.
Berdintasuna ez da guk uste
bezain helburu merkea.
Gutako batzuk biktimak dira
ta gu gara gizartea.

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbalde plaza, 7 - behe

BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

Faxa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

**Goierritarrak ez du bere
gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.**

Goierritarra

diruz laguntzen duten
erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

4. Iritzia: Xabier Mendiguren Elizegi.

5. Ingurugiro txokoa: Airearen
kalitate txarra Beasainen.

6. Euskara txukuntzen:
Denetik (VI)

7. Gazteleku: Ana eta Irene Usabiaga
txirrindulariak.

12. Erreportajea: Lizarrustiko
parketxea.

16. Erreportajea: Pello Huesa
ordiziar amerikarra.

20. Erkarizketa: Alaitz Eguren
aktorea.

23. Iragarki laburrak.

24. Non zer.

26. Argazki zaharra.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



Xabier Mendiguren
Elizegi

*Beasainen
igandean
paseatzen edo
dendaren batean
erosketan
ikusten ditudan
gizonezkoetatik
200 lagun baino
gehiago dira
aste horretan
Ontzatik edo
antzeko lokalen
batetik pasatu
direnak.*

Zenbat putazale dago gure herrian?

Orain dela gutxi Emakunderen txosten bat atera zen komunikabideetan, gure gizarteko prostituzioaren ingurukoa. Han ziotenez, Euskal Komunitate Autonomoan pare bat mila emakumek lan egiten omen dute guztietan lehena omen den ogibide horretan; Nafarroako datuak ere berdintsuak omen dira, beste nonbait ikusi dudanez. Batekoz beste, mila biztanleko prostituta bat. Beraz, erraz atera lezake gutako bakoitzak bere herriko proportzioa: beasaindarrei dozena bat tokatzen zaigu, ordiziarrei bederatz, segurarrei bat, eta abar. Ezin esan zehazki hala banatuta daudenik, posible baita leku batean bestean baino kontzentrazio handixeagoa egotea. Adibidez, pentsa liteke Legorretan hornituago egongo direla alde horretatik.

Mila biztanleko bat, esan dugu. Kopuru hori asko den ala gutxi, ez naiz eztabaidan hasiko. Beste bat da burura etorri zaidan galdera. Prostitutak zenbat diren bai, esan zaigu, baina zenbat dira gure arteko putazaleak? Emakunderen txostenak ez dio hitzerdirik horretaz; beraz, neure kalkulak egiten hasi naiz. Bezeroak gizonezkoen artean topatzen dituzte, nik dakidala; hortaz, bostehun lagun gaude prostituta bakoitzeko. Oso umeak eta oso zaharrak direnak kenduko ditugu hurrena; ez dakit zenbat diren adina dela-eta jarduera honetatik kanpo geratzen direnak, baina jo dezagun bostetik bat baztertzan dugula gazteegi izateagatik eta bostetik bat helduegi izateagatik. Hirurehun lagun dira orain bezero potentzialak.

Orain artekoa erraz asma zitekeen.

Hemendik aurrerakoa, berriz, aliritzira botako dut eta litekeena da oso deskuidatuta ibiltzea. Dena dela, segi dezadan. 300 horietatik batzuk sarri-sarri joango dira, eta beste batzuk noizbehinka. Prostitutak beren bizimodua aurrera ateratzeko eta putetxeetako enpresariak negozioa egiteko, zenbat zerbitzu egin behar dituzte, batez beste? Egun hobeak eta txarragoak izango dira baina, eman dezagun astegun buruzurietan hiru bat lagun atenditzen dituela emakume hauetako bakoitzak, bezero fijo samarrak, eta asteburuan gehiago.

Kalkulu horien arabera, profesional bakoitzeko 20 bat bezero zintzo edukiko genituzke, astero agertzen direnetakoak, eta beste zenbait (10, 20, 30?) noizbehinkakoak. Hortaz, norberaren herriko datuetara itzuliz, Beasainen igandean paseatzen edo dendaren batean erosketan ikusten ditudan gizonezkoetatik 200 lagun baino gehiago dira aste horretan Ontzatik edo antzeko lokalen batetik pasatu direnak, eta beste horrenbeste aldia behin bisita egiten dutenak. Ataurien eta Zegaman hogeita hamar bat, Lazkaon 140...

Prostituten %90 atzerritarak zirela zioen Emakunderen txosten horrek, eta baten batek pentsatuko zuen halako gauzak kanpotarren kontuak direla, ez bertakoak. Baina, huts egiteko beldurrik gabe esan liteke bezero horietako %90 bertako gizasemeak direla; mutilzaharrak batzuk, ezkonduak beste batzuk; gazte, sasoi, heldu... Askok den, gutxi den, bakoitzak jakingo du; niri behintzat izugarria iruditzen zait, eta barkatu sermoinuan bukatzea gaurko artikulua.




ANZIZAR, S. A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**



Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**
www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxe.: 943 88 48



Pintxo hotz eta beroak
Ogitartekoak

Legazpi kalea, 3 **ORDIZIA** ☎ 943 16 03 04

Airearen kalitate txarra Beasainen

Pasa den abenduko egunkarrietan irakurri ahal izan genuenez, Beasain herriaren izena behin eta berriz ageri zen airearen kalitateari dagokionez Gipuzkoako herri kutsatuen artean. Arrasate eta Tolosak soilik hartzen omen diote aurrea Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde antolamenduaren Departamentuaren arabera. Lezo bezalako beste herri batzuk zerrendetatik irteera lortu duten arren, Beasainek beste urte batez muga gomendagarriak gainditu ditu.

Partikula kutsatzaileak

Europar Batasunak airearen kalitatea ona izateko airean suspentsioan dauden partikulak 40 mikrogramo baino gutxiago izan behar direla adierazten du. Urtean 35 aldiz baino gehiagotan 50 mikrogramotako muga gainditzen duten herriak zerrenda honetan sartzen dira.

Arazo nagusia airean aurkitzen diren hauts partikula txikiak (PM10) dira, baina baita nitrogeno dioxidoa edo ozono troposferikoa ere. Azken honek, denbora luzean eraginez gero, epe luzean biriketan kalte garrantzitsuak eragin ditzake. Bestetik, nitrogeno dioxidoak edota airean dauden

beste partikula txikiek (PM10 kasu), haurrei, pertsona edadetuei eta asma bezalako arnasketa arazoak dituztenei eragiten diete zuzenean.

Trafikoa arazo nagusi

Adituen arabera, partikula gehienak autoetatik eta etxe eta lantegietako tximinietatik datoz. Honekin lotuta, trafikoa da arazoa konpontzeko gai korapilotsuena. Herri barruan ematen den trafikoa garraio publikoaren kudeaketa on batekin konpon liteke. Baina Beasainek (eta Goierriko beste zenbait herrik) duten arazo larrirenetako bat N-I bezalako errepidea ondoan edukitzea da. Gaur egungo garraio eredia kontutan harturik, ez du ematen arazoa epe laburrean konponduko denik. Gainera, bertatik igarotzen diren diesel auto eta kamioien kopurua oso altua da, eta kontutan hartzen badugu diesel motorrek gasolinak baino lau aldiz partikula gehiago igortzen dituztela, kutsadura ere nabarmenki handitzen da. Gaurak honela, eskualde barruan eta eskualde batetik bestera egiten diren mugimendu asko autobus edota aldirietako garraio publikoen kudeaketa on batekin murriztu daiteke.

Lan publiko eta harrobiak

Airean suspentsioan dauden partikulen beste jatorri bat eraikuntza eta berritze lanak dira, baita harrobiak ere. Aktibitate hauetatik hauts partikula ugari aska-

tzen dira airera. Goierri azken urteetan egin diren eraikuntza lanak nabarmen-tzekoak dira: etxebizitza berri ugari egin dira, baita zaharrak bota edota berriztatu ere. Lan publikoak ere egin izan dira, lur mugimendu handiak eraginez. Jatorri honetako kutsadura ekiditeko zenbait neurri hartu nahi dira erakundeetatik: hondakina eta hondakinak garraiatzen dituzten kamioiek karga tapatzea edota egunaren amaieran eraikitzen ari diren inguruak urez busti eta harea eta zementu pilak estali, etab....

Industria

Goierriko aire kalitatea okerrera bultzatzen duen beste faktore bat industria da. Industriak ekartzen duen onura ekonomikoak oso garrantzitsuak dira, baina kutsadura ere kontutan hartu behar da. Batez ere fundizioek eta altzairutegiek sortzen dituzte esekiduran dauden partikulak.

Aditu eta politikari batzuen arabera, herrigunetako aire kutsadura jaisteko, kutsadura sortzen dituzten guneak herrietatik urrundu behar dira. Baina, hori ez al da erratza pasa eta zikinke-ria alfonbra azpian gordetzea bezalakoa?

Aire kalitatearen informazio eguneratua Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta lurralde antolamenduaren web orrian duzue: http://www1.euskadi.net/vi_ma_ai_vigilancia/indice.apf?lenguaje=e

Arantxa Bodego

JAKIN BEHARREKOAK

Aral itsasoa. 40 urtez gehiegizko ureztatzeak, ia basamortuko eskualdeetan arroza eta kotoia hazteko, Aral itsasoaren azaleraren bi heren galtzea lortu zuen. Arrainen desagerpena, gazitasunaren igoera eta pestizidengatik kutsadurak hondamen ekologikoa eta soziala ekarri zituen. Kazajistango lehen-dakariak arazoari aurre egiteko 2001 errehabilitazio egitaraua martxan jarri zuen Kazajistango Aral Itsasoan. Iparra eta hegoa banatzeko dikea egin zuen eta Sir Daria ibaiaren ibaiertzak suspertu zituen. Neurri hauen emaitza urtebetan nabaritu ziren, urak 3 metro gora egin zuen eta 2006 itsasoaren azalera %13 handitu zen. Gazitasuna jaitsiz, bazterrak bere onera ekarriz eta landaretza berreskuraturik, bertako animaliak itzuli ziren eta hauekin batera arrantzaleak eta beraien familiak.

LIBURUA

'AGUA'. Joaquin Araujo, Lunwerg. Urari buruzko argazkien hautaketa eta urak gizakiarekin duen harremana garai ezberdinetan dira liburu honen ardatza.

'Vivir (bien) con menos'. Manfred Linz, Jorge Riechmann eta Joaquin Sempere. Icaria Mas Madeira. Hiru ikerlari hauek lan honetan benetazko jasangarritasunera eramango gaituen bideei buruz hausnartzen dute.

Denetik (VI)

Maizpide
euskaltegia

Gaur ere “danetio pixkat”!

Sesioa eta saioa!

Kontuz, askotan nahastu egiten ditugu-eta!

SAIOA: jarduna-edo adierazteko. Gaztelaniazko “sesión” hitzaren itzulpen egokia.

✓ *Gaurko saioan Jehovaharen lekukoei emango diegu hitz egiteko aukera. (Zuzen)*

✓ **Gaurko sesioan Jehovaharen lekukoei emango diegu hitz egiteko aukera. (Oker)*

SESIONA: Goierrin maiz erabiltzen dugun hitza, iskanbila adierazteko.

✓ *AHTri buruzko mahainguruan inor ez mintzea eta se-siorik ez izatea ezinbestekoa izango da.*

Gure amaren zorionak?

Zuzena ote da atal honi izenburua ematen dion esal-dia? Bada, ez! Ia edonon horrela entzuten ohituta bagau-de ere, ez da batere txukuna! Nola beharko luke? Bada, erreparatu ondorengo adibideari:

✓ *Etzi gure amaren urtebetetzea (urtemuga) ospatuko du-gu Mutiloan. (Zuzen)*

✓ **Etzi gure amaren zorionak ospatuko ditugu Mutiloan. (Oker)*

Eta noiz erabiliko dugu “zorionak”? Bada, hain zuzen ere, zoriontzeko!

- *Ze, Domingo, gaur hire urtebetetzea al duk? Mieli zerbait aditu zioat...*

- *Bai, gizona! 64 bete ditiat / dizkiat!*

- *Zorionak, motel!*

- *Eskerrik asko! Goazemak Anttonirenera baxoerdi bat bar-terera! Gaur nik gonbidatuko haut!*

Aurrerantzean, beraz, erne! Ea zorioneko “zorionak” ho-ri behar denean bakarrik erabiltzen dugun!

Zure partez... ala zure partetik?

Bigarena erabili beharrean... ez ote dugu lehenengoa as-
kotan erabiltzen? Bada, kontuz, ez dira gauza bera-eta!

PARTEZ: honen ordezkia ordezk da.

✓ *Bibarko bilerara ni neu joango naiz zure **partez**. (Zu-zen)*

✓ *Bibarko bilerara ni neu joango naiz zure **ordez**. (Zu-zen)*

PARTETIK: Eskumuinak edo goraintziak emateko (edo ha-lako zoriontzeko) norbaiti esanez gero, honen erantzunak nolakoa beharko luke?

✓ *Bai, zure PARTETIK! (Zuzen)*

✓ **Bai, zure PARTEZ! (Oker)*

Hi, Hugo, eskuminak
emaizkiok Fideli!

Bai, Karlos, hire partetik!



Zuzendu, behar izanez gero...

1. Gaur gure amonaren zorionak dira eta kantu polit bat eskaini nahi diot!
2. Bada... zoriondu amona nire partez!
3. Gaurko sesioan nerbioak nola lasaitu ikasiko duzue.
4. Badirudi Hugok eta Karlosek ahaztutzat eman dute-la izan zuten sesioa.
5. Biharko saiora Iker joango da nire partez.

OHARRA: lehenengoa urtebetetzea behar du; bigarrena, partetik; hirugarrena, saioan; laugarrena eta bosgarrena zuzenak dira.

ainaraberrria

HANKARA
podologia zentroa

Tel.: 943 887 946
Zelaeta-berri plaza,4 BEASAIN

ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA

txekin
www.txekin.net

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble
ajentzia

zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 2 behea
ORDIZIA


9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA



Ana eta Irene Usabiaga txirrindulariak

Ordiziako Usabiagatarren etxean, txirrindularitza izaten da hizketagai nagusia. Anaia zaharrena, Pedro, afizionatueta dabil. Atzetik datozkio, indartsu, Ana eta Irene ahizpak. 18 urte ditu Anak; Irenek 14. Ziklo

kroSean, pistan eta errepidean aritzen dira ordiziar gazteak. Anak, Europako eta Munduko txapelketetan parte hartu zuen aurreko denboraldian. Nesken txirrindularitzaz luze aritu gara ondorengo elkarrizketan.



MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

Ikaskide
irakaskuntza eta pedagogia

ESKOLA LAGUNTZA:
Gai eta maila guztiak

INFORMATIKA:
Mekanografia, Word...

INGELERA:
Haurrak, gazteak, helduak

IKASKETA TEKNIKAK, TAILERRAK

UNIBERTSITATE MAILA:
Enpresaritza, Injeniaritza

Joan Iturralde, 5, Beasain
943 160 120
www.ikaskide.net

xetai
nafarroa etorbidea 1
20200 beasain gipuzkoa
www.xetai.net



Tolosa txirrindulari taldeko kideak dira Ana eta Irene Usabiaga txirrindulari ordiziarrak. Anak 18 urte ditu eta junior mailan dabil; Irenek, 14 urte ditu eta kadeteetan dabil. “17 neska gauden taldean. 10 bat Gipuzkoakoak gara eta besteak, Estatu Espainiarreko leku ezberdinetakoak”.

Ziklo krosetan lasterketan ikusi zaituztegu negu partean. Errepidean ere ibiltzen al zarete?

Ana: Ziklo krosetan, pistan eta errepidean ibiltzen naiz. Azkenean urte guztia pasatzen dut txirrindu gainean. Bizikletan ibiltzeko, konstantzia behar da eta ez baldin bazaizu ez dago zereginik.

Bizikleta gainera, ez da futbola bezala, ez dago talderik, bakarrik entrenatu behar duzu.

Irene: Ni kadeteetan nabil aurtan eta pistan oraindik ez naiz hasi, aurtan probatuko dut. Espainiako txapelketak abuztuan izango dira eta ea zerbaitetarako astirik ematen didan.

Emaitza onak lortzen ari zarete.

Irene: Aurtan serio entrenatzen hasi naiz eta emaitzak uste baino hobeak izan dira. Oraindik seriotasun gehiago jarri beharra daukat. Ziklo krosetan, Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketak irabazi ditut eta Espainiakoan, hirugarren



Arg.: Angel Elorza



“Neskekin lehiatzeko asko bidaiatu behar dugu”

Lasterketa asko edukitzen al dituzue?

Irene: Ni orain arte, Gipuzkoan, mutilekin ibili naiz lasterketan. Baina kadetetatik aurrera, neskekin lehiatu nahi baduzu, asko mugitu behar zara.

Ana: Igande batean Murtzian daukazu, bestean Katalunian, hurrengoan Sevillan... Espainian gauden guztiak elkartzeko aukera bakarra hori da. Maila bakoitzetik 50 bat egongo gara. Karrerak normalean, bi astean behin izaten ditugu, martxoan hasi eta abuztuan bukatzen dira. Euskaldunok Euskal Herria Trofeoa ere izaten dugu eta hor beste 6 lasterketa izaten ditugu. Eta karrerarik ez daukagunean, mutilekin ateratzen gara.

Aurtan dena den, aldaketak egongo dira seguruenik. Orain arte, 3 mailatako neskak, lasterketa berean parte hartzen genuen; 14 eta 30 urteko neskak elkarrekin. Kilometroekin ere ezberdintasunak egoten dira eta epaileak askotan ez dira enteratzen. Karrerak igande goizean izaten dira normalean eta pentsatzen ari dira, kadeteen lasterketa, larunbat arratsaldera pasatzea, hainbeste maila ez elkartzeagatik. Azkenean ez dakit nola geldituko den.

Mutilekin zer moduz moldatzen zarete?

Irene: Ni orain arte mutilekin lehiatu naiz beti eta aurtan ere denboraldi hasieran hala ariko naiz.

Ana: Nik, Ireneren adineko mutilekin parte hartzen dugu.

Ez da berdina 15 urteko mutil bat edo 15 urteko neska bat. Mutila, ‘esplosiboagoa’ da beti. Kadete mailan gehiago kostatzen zaie lasterketak bukatzea. Adibidez, nik iaz, ez neukan arazorik; karrerak aurrean bukatzen nituen. 18 urteko mutilekin ateratzen bazara, alde handia dago. Junior neskak aukera daukagu, gure maila berekoekin edo maila bajuagoekin lehiatzeko. Ni iaz juniorretara pasatu nintzen eta kadete mutilekin aritu nintzen. Kadeteetan karrerak oraindik ez dira oso luzeak, 40-50 kilometrokoak, eta menderik ez da sartzen. Fondo hartzeko ondo dago. Gero neskekin aritzen zarenean, antzematen da mutilekin eginakoa.

Irene: Ni nire adineko mutilekin aritzen naiz. Mutilen artean ezberdintasun handia dago; batzuk oraindik oso umeak dira eta beste batzuk eginagoak daude. Zure parekoren baten erreferentzia hartu eta atzetik ibiltzen zara. Mutilekin lehiatzea ondo dago, beste erreferentzi batzuk hartzen dituzu. Neskekin lehiatzen bazara, gutxi baldin badaude eta erraz irabazi, ezer egin gabe irabazita...

Ana: Aurtan adibidez, pistan, mutilekin ariko gara. Iaz, neskak bakarrik ibiltzen ginen eta ni joaten nintzenean, beste neskak ez ziren saiatzen niri irabazten, bigarren nor geldituko ziren lehiatzen ziren. Aurtan mutilekin jarriko gaituzte.

egin nuen. Beste lasterketa-
ren bat edo beste irabazi
dut. Gipuzkoako txapelke-
tan ni bakarrik nengoen
baina... Mutilak ere ez dau-
de asko eta neskak gutxia-
go.

Ana: Euskadiko txapelketa
eta beste karrera batzuk ira-
bazi ditut. Espainiako txa-
pelketan bigarren egin
nuen. Nik aurren ziklo kro-
sa ez dut batere prestatu.
Bi-hiru karrera afizioagatik
egin ditut, baina beti erre-
pidean pentsatzen. Nik zi-
klo krosa egiten dut, errepi-
deko denboraldian pentsa-
tuz. Ziklo krosa aurre den-
boraldia bezala da. Dena
den, aurren erabaki dut,
pistan gehiago saiatzea, iaz
Europako txapelketara joa-
teko oso gertu gelditu bai-
nintzen.

Ziklo krosak pistarako balio al du?

Ana: Ez daukate antzekota-
sun handirik. Pistan, abia-
dura handiagoan zoaz, fre-
norik ez daukazu eta tekni-
ka ondo ikasi behar da.
Trobelean ibiltzen ikasi be-
har da. Eta ziklo krosean,
tropelek ez daukazu, baka-
rrik zaude. Ziklo krosetako
eta pistako gauzak, errepi-
derako erabiltzen ditut.
Errepiderako asko balio du,
tropelean ibiltzen jakiteak
eta ziklo krosetako jaitsierata-
ko teknikak. Teknika alde-
tik, besteak baino gehiago
naizela ikusten dut, modali-
tate guztiak egiten ditudala-
ko. Portu bat jaisterakoan,
ziklo krosetan aritzeak balio
du.

Zuk Irene, orduan, ahiz- paren bide bera proba- tzeko asmoa daukazu, orain pistarekin hasita.

Irene: Niri pista ez zait
gehiegi gustatzen, frenorik



Sprinter peto-petoa

Europako eta Munduko txapelketetan izan zinen iaz Ana. Zer moduzko esperien- tzia izan zen?

Errepideko eta pistako txapelketetara joateko aukera izan nuen, baina pistakora ez nin-
tzen joan, Espainiako maila ez baita oso ona. Handik astebetara, Sierra Nevada bilkura
bat egin zen eta bertara joan nintzen. Mexikon ziren Munduko txapelketak eta alturara
ohitzeko, Sierra Nevada joan ginen. Berehala esan zidaten, Europako txapelketan zer
egiten nuen arabera, Mexikora joango nintzela. Europako txapelketara beldurrez joan gi-
nen, aurreko urtean ez baitzuten lasterketa amaitzea lortu. Sprintean bukatu zen karrera.
Eta sprintean, Espainian, beti oso ondo moldatu izan naiz. Lehenengo urteko kadetea
izanda, elitekoekin, bigarrena edo hirugarrena egiten nuen. Eta beti gogoia neukan, Eu-
ropa mailan, nire sprintak, zein maila zeukan jakiteko. Eta beti gogoratzen naiz, nire lo-
gelako lagunarekin hitz egiten nuela, ea sprinean iristen ginen. Eta hala iritsi ginen. Hi-
rugarren egin behar nuen, baina ia helmugan nengoela, zulo bat harrapatu nuen, katea
atera eta azkenean bosgarrena egin nuen. Lasterketa bukatu, eta Munduko txapelketara
eramango nindutela esan zidaten. Hura handia izan zen. Munduko txapelketan zorte txa-
rra eduki genuen. Hiru joan ginen eta entrenamendu batean bat erori eta omoplatoa hau-
tsi eta etxera joan zen. Eta beste biak, tripetatik gaizki jarri ginen. Biok bukatu genuen
baina ea aurren berriz ere Munduko txapelketara joaten naizen eta barruan dudan aran-
tza atera.

Sprinterra zara beraz.

Nik beti, ez nintzela sprinterra esaten nuen. Azkarra nintzela. Baina, selekzionatzailerak
esaten dit sprinterra naizela eta sprinter batek jakin behar duela baita ere, kokatzen, oso
azkarra izan behar duela karreran, izugarrizko bisioa eduki behar duela. Denek esaten di-
date, hain gaztea izanda, Europako txapelketan, azkeneko kilometroetan, nola fijatu nin-
tzen, sprinterrak zeintzuk izan zitezkeen. Haien gurgilean sartzen saiatu nintzen eta haie-
kin borrokan aritu nintzen... Esaten dute ez dela normala, 17 urteko neska bat gauza ho-
rietan fijatzea.

Autowag



☎ 943 888 254

☎ 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN



Ana Usabiaga

Txirrindularitzaz gain, beste kirol bat:
Futbola.

Zaletasun bat:
Kirola.

Eskolan gehiena gustatzen zaizun gaia?:
Geografia.

Musika talde bat:

Asko bidaiatzen dugunez, beti irratia jarrita izaten dugu. Denetik entzuten dut.

Liburu bat:

Lance Armstrong txirrindulariaren liburu bat irakurri nuen, lehenengoa, eta asko gustatu zitzaidan.

Janari bat:

Entsalada.

Edari bat:

Ura.

'Handia' egindakoan zer izan nahi duzu?
IVEF ikasi nahi dut.

ez edukitze hori... Probatu eta beharbada gustatu egingo zait. Ikusiko dugu. Gustatzen bazait, saiatuko naiz.
Donostian, Anoetako belodromoan entrenatzen al duzue?

Ana: Bai. Igandero izaten dira pistako lasterketak eta hori Estatu mailan, Gipuzkoan bakarrik gertatzen da. Pistarekin aprobeitatu egiten duzu forma pixka bat hartzeko. Euria eginda ere, belodromora joan eta entrenatzeko aukera izaten da.

Errepidean ibiltzen al zarete gustoren?

Ana: Ni bai. Hiruak probatu ditut eta beti esaten dut gehiena gustatzen zaidana, errepidea dela. Beti saiatzen naiz errepideko helburuak oso ondo zehazten eta errepidekoa ahalik eta ondoen prestatzeko, ziklo krosa eta pista egiten ditut. Normalean, Espainiko txapelketak, Europakoak eta Mundukoak, uztaile eta abuztu aldean izaten dira. Niri gustatzen zait, formarik onena orduan izatea. Badago jendea oso indartsu hastea gustatzen zaiona eta man-

tentzen saiatzea. Baina gero bukaeran larri ibiltzen dira. Niri poliki hastea gustatzen zait eta forma hobetzen joatea.

Elkarrekin entrenatzen al duzue?

Ana: Oso gutxitan. Kategorietan diferentzia badago. Kilometroak ez dira berdinak, abiadura, pultsazioak ere ez... Desarrolloak ez dauzkagu berdinak... Normalean bakarrik entrenatzen dugu. Inguruan, neska gutxi dago.

Entrenamenduak non egiten dituzue?

Ana: Goierri inguruan oso leku ona daukagu. Orain gainera bide gorriak jarri dituzte. Tolosaldera, Ataioraino, Zumarraga aldera... Guk zorte handia daukagu.

Irene: Ni aurtan hasi naiz serio entrenatzen. Orain arte, beste kirol bat eginez gero, hango entrenamenduekin nahikoa izaten zen.

Nor duzue entrenatzailerak?

Ana: Ramon Elkoro eta Xabier Muriel. Ramonek errepideko prestakuntza egiten dit eta Xabierrek pistakoa. Bien artean hitz egiten dute eta entrenamendu osagarriak jartzen dizkirate. Aurtan hasi naiz beraiekin, eta ondo.

Irene: Ni aurtan hasi naiz entrenamenduak programatzen. Nahiko ondo daude. Egun batean, gimnasioa, igeriketa, korrika egitea, txirrindua...

Ana: Anaia, Pedro, hasi zen lehenengo Ramonekin eta

hark garbi esan zigun lehenengo egunetik, berak pertsonak formatu behar dituela eta ondoren txirrindulariak. Ireneren kasuan, beraz, orokorrak dira entrenamenduak, gorputza egiteko. Eta ni berriz, aurtan, espezializatuagoa egiten hasi naiz.

Anaia ere txirrindularia duzue beraz.

Irene: Anaia hasi zen lehenengo, gero Anak jarraitu zion eta azkenean nik ere bai.

Ana: Egun batean, Pedro etxera etorri eta txirrindutaldean izena eman zuela esan zigun. Ni karrera guztiak ikustera joaten nintzen eta anaiak egiten zuen guztia egiten nuenez, nik ere txirrinduan hasi nahi nuela esan nion amari.

Aurretik, txirrindutaleztasunik ba al zen etxean?

Ana: Bai aita. Anaia hasi arte, ez genekien aita ere txirrinduan ibiltzen zenik. Esaten digute, geneetan zerbait ekarriko dugula.

Txirrindulari bezala, zein da zuen ametsa?

Ana: Ahal den gorena iris-

Ziklo krosa, pista eta errepidekoa probatu ditut eta beti esaten dut gehiena gustatzen zaidana errepidea dela. **ANA.**

Irene Usabiaga

Txirrindularitzaz gain, beste kirol bat:

Igeriketa.

Zaletasun bat:

Bidaiaitzea.

Eskolan gehiena gustatzen zaizun gaia:?

Geografia. Ez dut ematen baina iaz ingelesean, Europako hiriak eman genituen eta asko gustatzen zait. Nire kontura, Afrikako herriak ikasi ditut.

Musika talde bat:

Denetik entzuten dut.

Liburu bat:

Ez zait irakurtzea gustatzen, behartuta irakurtzen dut.

Janari bat:

Makarroiak.

Edari bat:

Ura.

'Handia' egindakoan zer izan nahi duzu?

Masajista.



tea. Neskentzako, Italiako Giroa, mutilentzat Frantziako Tourra bezala da. Nik beti esaten dut, noizbait aukera emango balidate, Giroan ateratzeko, bukatzea beste kontu bat izango litzateke, ni konforme.

Gero, profesionaletara iristea... Europako txirrindularitza nesketan, eta Espainian, ez da berdina. Askoz ere maila altuagoa dago. Nik aurten ikusi dut hori, Europako eta Munduko txapelketetan. Italiarrak, errusiarrak, alemaniarrek eta holandarrek, oso ondo entrenatuta daude; eta hemen, ia-ia ez digute kasurik egiten. Ez da berdina profesionala Espainiako talde batean edo Europako talde batean izatea. Niri noski gustatuko litzaidakeela egunen batean Europako talde bat etorri eta haiekin joatea.

Irene: Nik lehenengo, igeriketan aritu nintzen eta nire ametsa zen, Olinpiadetan parte hartzea. Ezinezkoa zela ikusi nuen, igeriketan jende asko dagoelako eta segundu batean 15 pertsona sartzen dira. Txirrindulari-

tzan berdina, ea egunen batean Olinpiadetan parte hartzen dudana. Orain gainera, 2016an Madrilen egingo balira, aukera gehiago izango genuke txirrindulari gehiago eramateko.

Ana: Madril bezala, beste hautagai bat Rio de Janeiro da. Madrilen izatea beharbada hobeto etorriko zaigu, laguntza eta beka gehiago egongo liratekeelako. Eta hori oinarri bat izango litzateke, hurrengoetara joateko. Madrilek gazteegi harrapatuko gaitu baina hurrengorako prestakuntza bat izango litzateke.

Bukatzeko, txirrindularitzaren egoeraz hitz nahi genuke. Nola ikusten duzue?

Irene: Dopin gaiagatik, oso gaizki dago. Aspirina bat

hartzeagatik positiboa ematen duzu. Eta futbolean, Alemaniako Munduko txapelketan, 92 positibo eman ziren eta hori inork ez daki. Aspirina hartu baldin baduzu, medikuaren ziurtagiria rekin joan behar duzu. Oso gaizki dago.

Ana: Pertsona pare bat txirrindularitzaren kontra jarri dira, ez dakit zergatik, eta txikitzen joan dira. Orain txirrindulari guztiak susmo-pean gaude. Txirrindularia naizela esan eta jendeak esaten didan lehenengo gauza, dopatu egiten naizela esatea da. Nik iaz, dopinaren aurkako 10 kontrol pasatu nituen. Jubenil batean hori ez da normala. Ea Realeko zein jokalarik pasatu dituen 10 kontrol denboraldi batean.

Irene: Neskak, hain gutxi izanda, zertarako dopatu behar zara, badakizu harrapatu egingo zaituztela eta. Espainia guztian bost baldin bagaude, podiuma egiten duten hiruei egin egiten die eta besteen artean zozketa egiten da.

Ana: Profesionalak zantpatuta daude. Eguneke 24 ordutan lokazible egon behar dira, edozein momentutan egin baitieziaieke. Hilabete osoan, non egon behar diren zehaztu behar izaten dute eta kontrola egitera joan eta ez badaude, 2 urteko zigorra jartzen diete.

Irene: Eskolara joan eta karreraren bat irabazi dudala esandakoan, zer hartzen dudana galdetzen didate. Jende guztiak pentsatzen du, txirrindularia bazara, dopatu egiten zarela.

Ana: Txirrindulariei egiten dizkien kontrol guztietatik, %2ak edo %3ak ematen du positibo. Pentsa zenbat kontrol egiten diren! Kirol guztietan dago dopina. Txirrindularitzan beti egon da, dago eta egongo da, baina kirol guztietan bezala.

Olinpiadetan parte hartzea da nire ametsa.
IRENE.



Lizarrustiko Parketxea:

Aralarko baliabideen erakusleku izatea helburu

Obrak irailan bukatu, eta 2009. urte hasierarako taberna, jatetxea, loge-lak eta Interpretazio Zentroa pres-tatuta egotea aurreikusten du Lizarrusti Parketxeko arduradunek. Aralar Parke Na-turaleko erreferentzia gun e izan nahi du

Parketxeak, Aralarko baliabideen bilgune eta erakusleku izanez. Eraikina itxirik ba-dago ere, Ataungo Udalak San Gregorioko Elkargunean utzitako bulegoan, proiektuak prestatzen ari dira Jon Etxeberria eta Or-katz Goenaga, ...


aulia
TOLARE
SAGARDOTEGIA
☎ 943 80 60 66
Aulia-enea
LEGORRETA


Jauregi
TOLDOAK



INSTALATZAILE OFIZIALA
 **laza** LLAZAPLUS ZENTROA
T 943 880 243 Antzizar auzoa z/g - Beasain

Zarauzko Arazi enpresak kudeatzen du Lizarrusti Parketxea. Bertako langileak dira Jon Etxeberria ataundarra eta Orkatz Goenaga tolosarra. Etxeberriak hiru eta erdi daramazki eta Goenagak urtebete. Lizarrustiko eraikina obratan dagoen bitartean, Ataun San Gregorioko Elkargunean dute lantokia. Eta ez daude geldirik: Lizarrusti Parketxean eskainiko diren zerbitzuak antolatzen eta Aralarren baliabideak jaso eta ezagutzera emateko moduak aztertzen eta zehazten ari baitira. 2009. urtearen hasierarako, guztia amaituta egotea aurreikusten dute.

Espazioaren birrantolaketa eginez, taberna, jate-txea, aterpetxea eta Aralar Parke Naturaleko Interpretazio Zentroa izango dira Lizarrustiko Parketxean, “modu nahiko zabalean, integrean. Adibidez, lehen ikusten baikenuen informazio zerbitzua ematen baldin bazen ere, oso baztertuta zegoela, jendea oso gutxi joaten zen bertara. Jakina, jate-txe eta taberna zerbitzua eskaini beharko direla, baina berez, zerbitzu horiek dira, bestelako zerbitzuen bila datozenentzat. Hau da, Parketxeak berez, Aralar Parke Naturaleko baliabide naturalak eskaini beharko lituzke, jendeari hori azaldu beharko lioke. Eta horren gainean, kontzientziazio lan bat egin. Ikusten genuen



Lizarrustiko Parketxeak antolatutako irteera bat.


Ekintza ezberdinak

Eraikina obratan badago ere, Lizarrustiko Parketxeak daude geldirik. Hitzaldi, ibilbide, erakusketa... ezberdinak antolatu dituzte Goierriko herri ezberdinetan. Era horretan, beraien lana eskualdera zabaltzeko ere balio izan diete. “Azken finean zerbitzu publiko bat da eta ez Ataunen dagoen zerbitzu bat. Aralar guztiona da, bi eskualdeko zerbitzua da, udalek zein herritarrek erabiltzekoa. Gure ekimenak kanpora atera nahi ditugu eta beraien guregana etortzea ere bai”, zehaztu dute Etxeberriak eta Goenagak.

Hilero arlo ezberdinak lantzen dituzte, hitzaldietan zein ibilaldietan. Otsailan eta martxoan, ibilbide tematikoak egingo dituzte. Otsailaren 17an, adibidez, geologia landuko dute. Amezketarako meategira joango dira. Martxoan, orientazioko ibilaldia egiteko asmoa daukate, jolas moduan. Eta apirilean, Ura gaia landuko dute, hitzaldi ezberdinetan.

Aranzadirekin, Ataunikerrekin, Jose Antonio Mujikarekin, Aralarko basozainekin... harreman zuzen-zuzena daukate Lizarrustiko Parketxeak. “Antolatzen ari garen ekintzen, oso jende zehatz batengana iristen ari gara. 40 laguneko talde bat badago, kontzientzia bat duten jendearenga iristen gara. Hauengana iritea erraza da; kontua da nola iritsi beste jende batengana. Horretarako planteatzen duguna da, Lizarrustiko Parketxetik beste ekintza mota batzuk antolatzea”.

Hilabetero gai ezberdin bat jorratzeko helburua izan dute Parketxeak, “hala, guretzat materiala biltzen hasteko. Dokumentazio aldetik ez dago ezer ere ez. Guri aukera ematen digu dokumentazioa pilatzen joateko. Gu formatzen joateko balio du”.



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)

659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA



Salmenta

Konponketa

Alokairua

Harilketa



T/F: 943 16 47 93 - M: 639 40 26 11



Aralar: gertu baina urruti

1994. urtean izendatu zuten Aralar Parke Natural. “Goierri bi Parke Natural ditugu eta biek lotura bat badaukate nahiz eta N-1 errepideak moztu. Lotura bat baduten bi Parke Natural dira. Segurasko, etorkizunean planteamendu hori egin egin beharko da. Ikusten da Goierri, Zegama, Segura, Zerain, Mutilo, Idiazabal... inguruak Aizkorri aldera jotzen duela eta Zaldibia, Ataun, Lazkao... Tolosaldeko Abaltzisketa, Amezketeta, Bedaio... Aralar aldera jotzen dutela. Gure planteamendua da, bi eskualdeak lotzea, eta Goierriarekin ez ahaztea. Oso gertu ikusten dugu baina badaude hainbat herri, beraiei orbitan sartzen ez dena”. Gertutasun bat badago “baina jendea, Aralarri bizkar emanda bizi da. Zenbat jende dago Aralarra joan ez dena? Joan egin behar da eta jende asko dago Aralarra sartu ere ez dena egin”.

Adibide pare bat jarri dituzte: “Itsasondo Makomunitatearen barruan dago eta itsasondoarek seguruenik ez dute jakingo beraiei herriak Aralarren zati bat daukanik. Edo Ordizian, ez du hainbeste ezagutuko bere herriak historikoki, lotura oso zuzena daukala Aralarrekin. Lotura badago, gurea da, oso barneratuta dago baina oraindik zubi batzuk falta zaizkigu, bidean galdu ditugunak”, diote Etxeberriak eta Orkatzek.

Lortu nahi dutena

“Mendizaleengana, kultura, natura, zaletasun eta kontzientzia minimo bat daukanarena, eta aldi berean, ez daukanarena iritsi nahi dugu. Batez ere jende hori zirikatu behar dugu. Inoiz Aralarra igo ez den eta igoko ez den herritarra. Behintzat jakin dezala zer dagoen Aralarren. Azken batean, Parke Naturalaren baliabide guztiak kontserbatzeko, modu bakarra, herriak berak kontserbatu nahi izatea da. Eta horretarako, ahal den guztiengana iritsi behar gara”.

zerbitzu hori berez ez zela eskaintzen. Beraz, erabat aldatuko den planteamendua egin dugu”, zehaztu dute Etxeberriak eta Goenagak.

Interpretazio Zentroa

Lizarrustiko Parketxeako Europako beste herrialdeetan oinarrituz, Parke Natural batek Parketxea eskatzen du eta Parketxeak Interpretazio Zentroa. “Orain arte, ordenagailu eta ikusentzu-

nezko bana zeuden. Baina oso mugatua zen. Aralar zer izan daitekeen, orientazio orokor bat ematen zion baina baliabideak zeintzuk diren interesa duenak, sakontzeko, aukera gutxi ematen zituen. Aralarren baliabide guztiak jendaurrean jartzeko Interpretazio Zentroa beharrezkoa da. Aralarlako Parketxea izan behar baldin badu, orain arteko egiturak ez du beteko behar minimo

hori”.

Kultura pixka bat falta zaigula ere uste dute. “Kataluniarrek, frantziarrek... Parke Natural bat baldin badago Interpretazio Zentro bat egon behar dela uste dute, informazioa eskaintzeko. Hemen ez dago horrelako kulturarik. Behar bada alderantzizkoa: hara informazio puntu bat dago!”.

Aurreproiektua gauzatu ta daukate, “baina Parke

Naturaletako zuzendari berria etorri da, Asier Arrese beasaindarra, eta berarekin ari gara gaia aztertzen”, diote.

Lizarrusti Parketxearen oinarritzko planteamendua, kontzientziazio lana ere bada. “Jendeari jakinaraztea Aralar hor dagoela, Aralarren zer dagoen, zenbaterainoko baliabideak dituen, guztionak direnak... eta jendearengana iristeko gu hor gaude. Azken batean, Lizarrustiko Parketxearen helburua da, Aralarlako baliabideak ezagutzera ematea eta ezagutza horrekin maitasun bat sortzen da eta horiek kontserbazioaren aldeko apustua sortuko delako”.

Lizarrustiko Parketxeako arduradunen asmoa, autofinantzeketan oinarrituz, Interpretazio Zentroaren doaneko planteamendua egiteko asmoa daukate.

Bigarren fasean, lo lekuak

Behin lehenengo fasea bukatuta, bigarren fase baten zain geldituko da Lizarrusti. “Foru Aldundiko eraikuntza guztietan irisgarritasun plana bete beharra dago eta etorri behar zuen obra bat etorri da. Hori dela eta, bigarren fasean, eraikinari beso bat aterako zaio eta logela berriak joango dira. Erdi lurperatuta joango da, ingurumenean ondo txertatuko dena. Horrek suposatuko du, goiko solairuan ditugun lo egiteko lekuak kanpora aterako direla eta goiko solairuan Interpretazio Zentroa joango da eta behean, taberna, jatetxea... Dimentsionamendu ona edukiko genuke, zerbitzu ezberdinak eskaintzeko: Interpretazio Zentroa, ibilbideak... Hitzaldia, erakusketak... egiteko lekua ere egongo da”, aurreratu dute.

Larraitz-Lizarrusti

Gipuzkoako Foru Aldundiak Lizarrustiren aldeko apustua egin du. Era hone-

tan, "puskatu nahi genuen Larraitz eta Lizarrustiren artean dagoen dinamika. Larraitz inguruko herritarrek garbi ikusten dute bertan beharko lukeela Interpretazio Zentroak eta inguru honetakoak Lizarrustin. Dударик gabe, ezin dugu elkarren kontra egin. Horrek adierazten du, zerbitzu hori izateko interes bat badagoea. Bilatu dezagun formula, zenbait ekitaldi antolatzen joateko, informazio puntu bat ere Larraitzen jarri.... Aurreproiektu horretan landu dugu Aralar guztiak izan dezala planteamendu bakarra, alde guztietan zerbitzua eskainiz, denengana iristen den zerbitzu izan dadila. Azkenean formulak bilatu beharko dira".

Turismoa

Turismoari begira ere lan egiteko tokia egokia izango da Lizarrusti. "Goierriko turismo sarean sartuta gaude eta eskaintza bat gehiago izango da. Kanpotarrentzako Parke Naturalak erakarpene nagusiak dira. Eskualdearentzako garrantzitsua izango da".

Jende asko inguratzen da Lizarrustira. "Aste Santuan oso ondo funtzionatzen du; udan ondo; udazkenean, oso ondo. Basoak jende asko erakartzen du udazkenean, Iruña, Bilbo, Gasteiz aldetik. 4 GR pasatzen da Lizarrustitik".



Orkatz Goenaga eta Jon Etxeberria Ataungo Udalak San Gregorioko Elkargunean utzitako bulegoaren aurrean.

Baliabide asko

"Aralarrek historia, natura... nahi duzun guztia dauka. Baliabide naturalak, geologia, fauna, flora, historikoki garrantzia handia izan du, mugan dago, larreetan monumentu arkeologiko garrantzitsuak ditugu, komunikabide oso zaharrak (galtzadak...), Nafarroa eta Gaztela arteko gerraren aztarna batzuk badaude... kultura aldetik, artzain sarioiak, artzainak...". Honelaxe laburbildu dute Jon Etxeberriak eta Orkatz Goenagak, Aralarrek daukan aberastasuna.

Goierritarrentzat garrantzia handiko gunea izan da historian zehar ere. "Oso humanizatua dagoen gunea da. Aktibitate handia izan du. Bai goierritarrak, tolosaldekoak, nafarrak... Aralar beraientzat, etekin bat ateratzeko lekua izan da. Basolanetan, artzaintzan, abeltzantzan... Horren ondorioz, eraldaketa bat izan da. Aralar ez da birjina. Gizakiak eragin handia izan du Aralarren. Guzti hori jakinaraztea da Lizarrustiren helburua".

Dena den, "goierritar asko, beti betiko bideetan ibiltzen dira. Bakoitzak Aralar ikusten du bere opitkatik edo perspektibatik. Batzuk joango dira aisialdi bila, beste bat joango da geologoa delako, beste bat artzaina delako... Interpretazio Zentroan, guk denak bildu nahi ditugu", azpimarratu dute.



zuhaizki
S A
Zurgindegia

Egurrezko lehioak, kontraleihoak, ateak eta eskailerak neurria.



JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55
Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa 20491 LEABURU



Kol. zkia.: 764



Nerea Larrea Oyarbide

Aho kirurgia
Implantologia
Periodontzia
Artikulazio eta ahoko minak

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118

Pello Huesa, ordiziar amerikarra

Bi urterako joan baziren ere, 14 urte daramatzate Pello Huesa ordiziarrek eta bere emazteak, Amerikako Estatu Batuetan. Hiru alaben gurasoak dira. Urtero bezala, turroiarekin batera, Gabonetan itzuli dira Ordiziara.



✕ Jabekideen komunitatea osatzea ✕ Komunitateen kontabilitatea ✕ Akten idazketa ✕ Aurrekontuen eskaera ✕ Aholkularitza legala ✕ e.a.	 AUZOKI Komunitateen administrazioa Kol. Zenb. 599 Urdaneta 52-behea ORDIZIA Tel.: 943 087 486
---	--

<i>Olagi</i> <i>Sagardotegia</i> <i>Jatetxea</i> © 943 88 77 26 ALTZAGA	Urte guztian zabalik Eguneroko menua Karta Sagardotegiko meua	
--	--	---


ETXERAKO OIHAL ETA OSAGAIK J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA

Ordiziako Ikastolan eta Beasaingo Lizeoan ikasketak egin ondoren, Bilbora joan zen Pello Huesa, soziologia ikasketak egitera, Deustuko unibertsitatera. Ikasten ari zela, Euskal Telebistarako azpitoluen enpresa batean ari zen. Bikoizketa ere probatu zuen, “baina itxura denez ez nintzen oso ona. Ez nenbilen oso gustura”.

Soziologiako ikasketak amaitu eta Frantzia egondako lagun baten bidez Grenoblera joan zen, “nati-bo español” bat behar baitzuten. “Hara joan nintzen gaztelania irakastera. Frantsesik ere ez nekien. Frantsesa, gaztelania jakinda, errazagoa da ikastea. Bigarren urtean unibertsitatera sartu nintzen master bat ikastera. Moldatzen nintzen nire frantsesarekin. Tesia ere idatzi nuen”, gogoratu du ordiziarrak.

Grenoblen ezagutu zuen gaur egun emaztea duen neskalaugun bizkaitarra. “Tesia egiten ari zen. Tesia bukatu eta AEBra joateko plana egin zuen, genetika ikasteko. Urte pare baterako plana zuen eta hari jarraitu nion. Bi urterako planarekin joan ginen, baina 14 urte daramazkigu”.

Virginia joan ziren lehenengo, Unibertsitate Herri batera. “Herri txikia zen, 30.000 biztanlekoa. Txikia, baina zerbitzu askorekin. Mundu guztiko jendea zegoen. Ikasle asko. Denda asko. Eskaintza kultural handia. Paisaia ederra. Virginia estatu ederra da. Klima ez da oso gogorra”, deskribatu du.

Dena den, etxe handiagoren bila hasi eta Ipar Karolinara joan ziren. Hego



Pello Huesa: “Nazioa oso aberatsa da ingurumen aldetik. Paisaia oso aberatsa da. Animaliak edozein lekutan ikusten dituzu. Oreinak asko ikusten dira, indioilar errealak, kattagorriak...”

Karolinaren mugan da. “Oso herri txikia da. Barrialdeko Amerika. Nahiko herri pobrea da. Unibertsitate nagusia bi ordutara dago, hirian; gurean dagoena, antena bat da.60. hamarkadan eraiki zuten bertako populazio inditarrei progresatzen laguntzeko. Denborarekin bihurtu da, ikasle ez oso onentzako unibertsitatea. Goi mailako irakaskuntza sartzeko modu bat da. Merkexeagoa, exijentzia guxtiagokoa. Jendeari lagundu egiten zaio aurreratzen. Helburu sozial handiagoa dauka unibertsitate honek. Beltz gehiago, inditar gehiago, lanean dabiltzan ikasle gehiago... ezin dute konsa-

gratu egun guztia ikasteko; eta bere aurreko ikasketak ez dira oso maila altukoak.

Gaztelania

Gaztelania erakusten die amerikarrei Pello Huesak. “Kasualitatez, urte askotan, euskara erakusten aritua nintzen, AEKn, Deustuko unibertsitatean. Frantzia gaztelania ere erakutsi nuen eta esperientzia horrekin, curriculuma prestatu eta horretan hasi nintzen. Gustura nabil. Gaztelania erakusteko lan asko dago”.

Modan omen dago gaztelania. “Amerikar peto-petoei erakusten diet gaztelania. Gehienbat unibertsitateko ikasle gazteei. Beraien

nazioa espantoltzen ari dela ikusten dute, merkatua ere badaukate... Jende bat, edukatu samarra dena, hasi da kezkatzen... mundu guztian eleanitzak izanik, beraiek hizkuntza bakarra edukitzea... sentsibiltatea, beharra, moda... denetik dago. Badirudi lehenago, frantsesa zela hizkuntza preziatuena. Frantsesak galdu egin du erakargarritasun hori. Alemaniera ere ikasten da. Klaseen eta inguruaren arabera ere badago. Iparraldean, erdialdean, badago Alemaniatik joandako inmigrazioa. Baina modan dago gaztelania”, azpimarratu du.

Moda horren arrazoiak galdetu diogu ordiziarrari:



RENAULT

LAZKAO GARAJEA

Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxa: 943 888 901

Senpere Industrialdea LAZKAO



KRISTALDEGIA

ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua 2/g
☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea
☎ 943 88 60 70

BEASAIN

“Jabetu egin dira beraien hezkuntza sistemak hutsune handiak dituela eta horietariko bat hizkuntzarena da. 60.eko hamarkadan, ilargirako karrera horretan, zientzietan apustu egin zuten gainerako gaiak alde batera utziz. Orain konturatu dira, ingelesa garrantzitsua dela. Oso kurioa da: jendeak oso gaizki idazten du ingelesez. Gu hemendik, ingeles kaskarrekin, joanda, jasotzen dituzun idazlanak jaso eta galdetzen duzu unibertsitario batek nola idatz dezakeen horrela. Ez dago Hezkuntza ministeriorik. Ez dago hezkuntza estandarrik. Ez dago curriculum bazarrik. Orain dela gutxi hasi dira, estatuka, gutxieneok ezartzen. Ikasleak testak gaitzetzeko prestatzen dituzte, ez ikasteko. Institututik atera eta oso formazio kaskarra du jendeak. Produktiboak izateko eta lanpostu onak hartzeko ere, institututik ateratako diplomarekin ez zoaz inora”, adierazi du.

Bizimodu “kaskarra”

AEBtako bizimodua “kaskarra” xamarra iruditzen zaio ordiziarri. “AEBtan opor gutxi dago. Askok ez dute oporrik, edo oporrak hartzen badituzte, ez dute kobratzen. Festa oso gutxi dago, urtaro eta egun guztiak berdinak dira. Asteburuan, erosketak egitera (igandean ere irekita daude denda asko), hori denbora pasa zoragarria. Ez dago hirigunerik, hiri handietan bakarrik dago holakorik eta askotan hilda geratzen da arratsaldeko 5etatik aurrera, bulegoak eta dendak ixten direnean. Dena dago kotxez egiteko pentsatuta, eta horrek esan nahi du aparkaleku handien eta hiritik kanpo askotan. Oso tristeak dira hiri txikiak zentroak, denda eta lokal asko itxita eta abandonatuta. Lanetik kanpo, denborapasa arruntena erosketak egin eta jatetxee-

Eliza batean ez bazaude, nahiko mugatua daukazu ingurune soziala.



Optimismoa

Zer duzu gustukoena?

Amerikarren optimismoa. Denek uste dute nahi dutena izan daitezkeela, eta benetan jende askok bilatzen du pobreziatik atera eta dirua egiteko modua, edo porrot egin eta berriz arrakasta edukitzeko modua. Flexibilitatea, praktikotasuna eta irekitasuna oso atsegin ditut: askotan, guk problemak ikusten ditugunean, eurak aurretik ikusten dituzte. Guk ezezkia ematen dugunean, eurak aldiz saiatu egingo dira aproba egiten. Bezeroa askoz hobeto tratatzen dute hemen.

Zer eramango zenuke hara?

Bizitza estiloa, bizimodua, bizitzen jakite hori, bizitzari plazerra ateratzeko jakituria hori... Niretzat bizimodu kaskarra da hangoa. Diru asko egin dezakezu, baina ondo pasatzeko ez da tokirik egokiena.

tara joatea da”, kontatu digu ordiziarrek.

Eliza, harreman leku

Eliza ere garrantzitsua da amerikarrentzat. “Eliza batean ez bazaude, nahiko mugatua daukazu ingurune soziala. Lanaren eta eskolaren inguruan ditugu harremanak, batez ere, hispanoekin. Elizaren batekoa ez baldin bazara, ez daukazu harremanik. Hiru laurdenak, Elizaren bateko partaide dira. Harremanetarako, elkarlaguntzarako... Eliza dago. Oso pragmatikoak dira. Hemen komunitatea daukazu, gertuan bizi zarela, askoz ere errotuagoak gaudelako... han errorik ez dago. Jendea oso aparte bizi da eta komunitatea egiteko zerbaiten partaide izan behar duzu eta normalean jendeak erlijioari heldzen dio. Jendeak Elizaz aldatzen du, Eliza bakoitzak eskaintzen duen ahalmenen arabera”, azpimarratu du ordiziarrek.

Kontserbadurismoa

AEBtako kontserbadurismoa asko hitz egiten da, baina ordiziarrek aitortu duenez, aurreritzi negatiboekin joan zen AEBetara. “Egia da Europan baino kontserbadoreagoak direla orokorrean, hala ere egoera konplexua da: ezagunak dira armak erabiltzeko eskubide zabalak, heriotz zigorra eta sententzia gogorrak (Europan baino kartzelaratuena tasa 5 bider altuagoa). Aldi berean eta paradoxioki, amerikarrak oso indibidualistak dira, eskuinekoak bereziki, oso anti-gobernu, anti-gobernu federala batik bat, nahiz eta legeari errespetu handia erakutsi. Askotan joaten dira hiritar arruntak epaitegietara gobernuren kontra, beren eskubideak defendatu nahian (orain gutxi, gobernuak epaileen baimenik gabeko komunikazioen interbentzioari utzi behar izan zion holako hiri-

tar batek auzitegira eraman eta gero). Erreferendumak sarri egiten dituzte, eskui-nak bultzatuta askotan: zergen kontra, inmigranteen kontra, homosexualen kontra esate baterako. Ezaguna da moral tradizionalagoa dutela, erlijiosoagoak direla, abortoa oso gai politiko beroa dela hemen, baina agian ez da hain ezaguna eliza episkopalak (anglikanoa, 2 edo 3 milioi bazkide) gotzain homosexuala idendatu zuela, edo abortoa legala dela 26. astera arte (Espainian 12 aste dira). Alde batetik, irriti eta telebista kristau asko daude eta amerikar gehienek ez dute Darwinen eboluzioaren teorian sinesten, baina beste aldetik telebistako serie arrakastatsuenek pertsonaia homosexualak agertzen dituzte”, zehaztu du.

Bitxikeria bat kontatu digu ordiziarrek. “Ezaguna da EEBBetako egungo inmigrante latinoamerikarren kontrako jarrera. Nire esperientzia berriz guztiz bestelakoa izan da: nire ingeles kaskarra eta guzti, gure umeen haurtzaindegiko Juntako lehendakaria izendatu ninduten. Lau urtetan arazorik gabe aritu nintzen hortan, 30 langile eta milioi bat dolar mugitzen dituen erakunde batean. Inork ez zuen ezer galdetu ni proposatu nindutenean, erakutsitako konpromisoarekin nahikoa zitzaien”.



Washingtongo Euskal Etxea

Euskaldunik topatu al duzu?

Lehenengo joan ginen tokian, lazkaotar bat eta oñatiar bat topatu genituen. Virginian geundela, Washingtongo batzuk ezagutu genituen, amerikar euskaldunak ziren eta gu bezala, emigratutakoak. Washingtongo Euskal Etxea sortu genuen. Oso txikia da, 12 lagun gara. Egoitzarik ez du. Oso praktikoak dira. Ez dute leku fisiko bat gauzak egiteko, telefonoa, lagunak nonbait elkartu, adostu zertan, dirua bilatzeko behar dena egin... Hori gustatzen zait, oso praktikoak dira, optimistak ere bai.

Zure alabei euskara eta gaztelera erakutsi diezue.

Oso gustura nago horrekin, baina konturatu naiz, zein zaila den, ama hizkuntza hori umeei transmititzea inguru erabat arrotzean. Ez da erraza hizkuntza mantentzea horrelako inguru batean.

Nola ikusten da Euskal Herria Amerikatik?

Ekonomikoki oso ondo ikusten dut, diru asko ikusten da, kontsumo ikaragarri altua. Agian ostentazio gehiegi: austeritate pixka bat gehiago ez litzateke gaizki etorriko garai txarragoak etortzen badira.

Egoera politikoarekin, frustratua eta eszeptiko nago. Euskaldun gehienak bezala, ETak armak baldintza gabe eta betirako noiz utziko dituen zain nago.

Euskadiko kobertura soziala eta bizimodua gustora inportatuko AEBetara, hangoak baino askoz ere hobeagoak baitira.

Itzultzeko asmorik bai?

Asmoa bai, baina oso zaila da. Gustatu, gustatuko litzazuke. Erretiratzeko ez da leku txarra.

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

**Mota guztietako
gida-baimenak**

Aita Urdaneta

ORDIZIA

☎ 943 88 72 76



ASEPLAN S.L.
A HOLKULARITZA - ENPRESAK

KONTABLEA

JURIDIKOA

LABORALA

FISKALA

MERKANTILA

INMOBILIARIA

FINKEN ADMINISTRAZIOA



Tel.: 943 887 129

Oriamendi 15, behea

BEASAIN

Tel.: 943 086 420

J.M. Iturriotz, z/g



SILVIA MIRAS CASASAYAS

ODONTOLOGOA

KOL. Zka: 649 RPS: 223/07



TEL./FAX: 943 88 92 87

SAN INAZIO KALEA, 2

20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

Alaitz Eguren:

*"Bizitza errelean
beldur asko
dauzkadalako
naiz beharbada
aktore"*



Otsailaren 4an, San Blas jaietan, etxean antzeztuko du Alaitz Eguren aktoreak. 17 urtetatik Arte Dramatikoko ikasketak egiten aritu izan

da Donostian eta Madrilén. 28 urte ditu eta behin ikaskeketak amaituta, antzerkiaren munduan bidea egin nahian dabil arriarandarra.



Logela, egongela
eta sukaldeko
altzari nahiz
osagarrietan
aukera paregabea

Altzariak neurritan
Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 - 639 631 640 faxa: 943 16 47 47
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

IÑAKI ARIN

aseguruak



943 888 702
Oriako pasealekua, 20
BEASAIN

Gogoratzen al zara noiz eta nolatan erabaki zenuen aktore izatea?

17 urterekin garbi neukan. Zergatik justu ez dakit; beharbada bizitza errealean beldur asko dauzkadalako, beharbada horregatik aukeratu nuen aktore izatea. Inkonzienteki.

Gizartean denok maskara batekin ibiltzen gara eta antzerkiak maskara kendu eta errealtatea beste begi batzuetatik ikusteko aukera ematen du. Hori sentitzea polita da, edozein pertsona izan gaitezkeela, edozein momentutan.

Pertsona bat gaizkilerik handiena izan daiteke, edo kontrakaoa. Mila erregistro daude eta horiek ikustea da azken batean antzerkia.

Noiztik zabilta antzerkiaren munduan?

17 urterekin Donostiako Arte Eszenetikoaren tailerrean hasi nintzen. 21 urterekin erabaki nuen gehiago ikasi nahi nuela eta Madril joan nintzen. Hiru urte egin nituen. Antzerki obra bat egin genuen...

Zer moduzko esperientzia izan da Madrilgoa?

Hasieran gogorra egin zitzaidan. Emozioak lantzen dira, bakoitzak bizitako bizipenetatik. Irudimenezko egoera bat lantzeko zure erregistroetara joaten zara. Gogorra da, zure bizipenekin lan egiten baituzu. Hasieran kostatzen da.

Bizitzeko? Bizitzeko ez. Aurreneko urtean, Lavapiessen egon ginen. Urtebetean ondo baina gehiago ez. Moroak eta txinatarrak borrokan, bertakoak azkenean okerrenak...

Madril atzean utzi eta etxera itzuli zara. Zer moduz dago antzerkigintza?

Oso itxia da, eta ez dauka gu laguntzarik. Euskal Herrian adibidez, ez dago Arte Dramatikoko zentro bat. Antzerkian mugitu izateko enpresa bat sortu behar duzu, eta gu enpresariak ez gara, aktoreak gara. Denetik

Barre laborategia



Mallabian izan zen 'Barre laborategia' antzezlan.

Argazkia: Balentin Mugertza.

Otsailaren 4an, arratsaldeko 5etan, Alaitz Egurenek aurkeztuta, 'Barre laborategia' antzezlan ikusteko aukera izango da Zelaako kiroldegian. Umeentzako ikuskizuna da, dena den, ikusleen arteko gurasoa bihurtzen da antzezlaneko protagonista. "Momentuan aukeratzen dut, ustez joko gehiena emango duena. Azkenean denak sartzen dira, saiatu saitzen naiz behintzat".

Inprobisazioan oinarritzen da antzezlan. "Dena inprobisazioa da. Gidoi bat badago baina ez dakizu zerekin topatuko zaren. Zailena horixe egiten zait. Denera irekita egon behar duzu. Ikasteko ondo dago".

Umeentzako antzeztzen gustura dabil Alaitz. "Publiko ona da, oso egizkoa. Umea aspertzen bada, ez du gezurrik esango; eta gustura baldin badago antzeztan egiten da. Publiko oso ona da umea".

egitea tokatzen zaigu. Bi-hiru urtera, Bilbon, Arte Eszenetikoaren eskola homologatua jartzekoak dira eta horrek esperantza pixka bat badaukagu, antzerkiaren munduari hemen ere leku bat egiteko.

Antzerkia egiteko telebistak erraztasuna ematen du. Famatu egiten den pertsonak antzerkirako erraztasun gehiago dauka. Eta zinerako ere baietz pentsa-

tzen dut. Zinea ere zaila da. Orain Euskal Herrian hasi dira urtero pare bat pelikula egiten, baina ez dago erraza.

Telebistan aritzeko aukerarik ikusten al duzu?

Telebistan lana egitea beharbada errazagoa da, baina kontaktuak sartzen dira tartean. Inoiz ez da jakiten. Telebista modari lotuta dago. Estereotipo batzuetako pertsonaiak hartzen dituzte. Ez

dute pentsatzen honek hau interpretatu dezake, ze itxura daukazu ba paper hori emango dizute. Ikasteko orduan ez dauka halako kreatibitatearik. Merkatua irekitzen du, hori bai.

Goenkale ikusi izan zaitugu behin edo behin.

Behin sekuentzia bat egin nuen. Aurrekoan deitu zidaten sekuentzia bat egiteko, eta horren zain nago, ez dakit noiz deituko didaten berri.

Goenkale aktore askorentzako eskola izan da. Egia esan, Goenkalek bide asko ireki ditu.

Madriken aukera gehiago al dago?

Aukera gehiago dago baina jendea ere askoz gehiago dago. Denak han gaude.

Irudimenezko egoera bat lantzeko bizitako bizipenen erregistroetara joan behar izaten da.

Di-da

Aktore bat:

Victoria Abril eta Javier Bardem.

Pelikula bat:

'La vida de los otros'.

Antzerki obra bat:

'Erreleboa' asko gustatu zitzaidan.

Eszenatokira atera aurretiko minutuetan zer sentitzen da?

Panikoa... denetik izaten da. Orena, zerbaitetan aritzea izaten da. Momentu horretan mila gauza pasatzen dira burutik.

Amets bat:

Antzerkiak bere lekua izan dezala.

Zaletasun bat:

Mendira joatea.

Janari bat:

Entsalada.

Edari bat:

Ardoa.

Liburu bat:

'Printze txikia'.

Herri bat:

Idiazabal.



Euskaldunak, andaluzak, galiziarak... Han ere ez dago erraza. Oso lan ezegonkorra da.

Zinea probatu al duzu?

Laburmetraia batzuk egin ditut, polita da. Ez dut antzerkia adina landu baina gustukoa dut. Zaila dago mundu hori ere. Zinea ez dut asko probatu, baina probatu dudana, asko gustatu zait. Baina antzerkia, bat-batekoa da. Publikoaren energia ere ez dakizu zein izango den...

Antzerkitik bizitzea posible ikusten al duzu?

Antzerkitik bakarrik bizitzea zaila da. Umeentzako taillerak ematen ari naiz. Baina egia esan, momentuero antzerkitik bizitzea ez dago erraza.

Euskaraz ala gaztelera sentitzen zara erosoago?

Madriila, eskolara joan nintzenean gaizki pasatu nuen. Hitz arraroak erabiltzen zizutzen irakasleek eta ez

nuen tutik ere ulertzen. Ikasi nuen. Orain iruditzen zait, euskara galdu egin dudala eta pena ematen dit.

Zein estilo gustatzen zaizu gehien?

Errealitatean gertatzen dena. Musikalak-eta ondo daude baina zerbait esaten dutenak gustatzen zaizkit. Errealitatean ikusten dena antzeztea gustatzen zait. Estilo guztiak gustatzen zaizkit.

Antzeztzerakoan negar egitea edo barre egitea da zailagoa?

Negar egitea zaila da, batez ere zinean. Grabazioa 'acción' esaten denean hasten da eta hainbeste jende inguruan, hainbesteko zalapartaren artean konzentratzea zaila da. Momentu horretan negar egitea kosta egiten da. Jendeari barre eginaraztea ere ez da erraza.

Talderen bat sortzeko asmorik ba al duzu?

Madriilen, lau lagunek sortu

genuen antzerki obra bat. Lagun bat gidoigilea zen eta hark idatzi zigun. Oso gustura aritu ginen. Baina aktore bat joan zen eta bertan behera gelditu zen. Bi aldiz egin genuen. Zaila da jendea momentu egokian bilatzea. Orain lagun bat eta biok ari gara pentsatzen zerbait egitea... Egiten duzuna saltzea ere zaila izaten da.

Momentuan, umeentzako antzeslanarekin ari zara. Helduekin aritzea ezberdina al da?

Aurten umetara ari naiz gehiago, lana hortik eskaini baitidate. Etorri zaidanari heldu diot. Baina nik berez, nahiago dut helduena, berez hori ikasi baitut nik. Haurrena orain ari naiz ikasten eta oso interesgarria da. Gogorra da inprobisazioari heldu eta egoerei aurre egitea kaleko jendearekin. Orain arte, istorio bat, pertsonaje bat landu eta pu-

blikoak hori ikustea izan da.

Antzerkiak daukan bat-batekotasun hori aipatu duzula, ixilik, nola atera ez dakizula gelditu al zara inoiz?

Beti dago zerbait. Behin, aspaldi samar. eszena batean kanta bat abestera atera behar genuen. Izara batek leihoak zituen, etxea izango balitz bezala eta ilunpetan ez nion leihorik topatu. Momentua iritsi zen, argia piztu zen eta izarari tirakada bat egin eta leihoa atera nuen ez zegoen lekuan. Askotan atzean gertatzen dena interesgarriagoa da.

Goierriarren artean ba al da antzerkia ikustera joateko ohiturarik?

Urtarrilaren 11n Beasainen izan nintzen antzerkia ikusten eta beteta zegoen antzokia. Emanez gero, nik uste dut jendea joaten dela. Baina antzerkiak bere lekua behar du.



kutxa

LANA

eskaerak

Hitzaro euskara elkarteak aisialdiko proiektuak kudeatzeko pertsona behar du. Lan jardun erdia. Kurrikulumak urtarrikilak 26 baina lehen hitzaro@euskalnet.net edo Hitzarora (Zumalakarregi, I Ordizia) bidali.

Araman emakume bat behar da orduka etxeko lanak egiteko. 650728717.

Ataungo Urbitarte sagardotegian lan egiteko pertsona bat behar da. 943180119.

Legazpiko Arrano tabernan zerbitzaria behar da. 669088946.

Zaldibian, denda bat eramateko pertsona bat behar da. 8:00etatik 14:00etara deitu. 943885500.

Tabernarako zerbitzaria behar da. Baldintza interesgarriak. 688632201.

Zeraingo Otatza sagardotegian zerbitzariak behar dira. 943801757.

Legazpin emakumea behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. 652776848.

Pertsona bat behar da larunbat gauetan ontziak garbitzeko, sagardotegi batean. 615700408.

Esperientziadun zerbitzari euskalduna behar da, autoarekin. 943880044.

Tolosako sagardotegi batean zerbitzaritzarako eta sukalde-

rako langileak behar dira. 660654317. Jon.

Akademiak irakasleak behar ditu: marrazketa tekniko, fisika eta kimika emateko. Bidali kurrikulumak honako helbidera: 61 posta kutxa. 20240 Ordizia.

Beasaingo Arrano tabernak zerbitzaria behar du. 943887447.

Ordiziako Herrikorako zerbitzaria behar da. 943887598.

eskaintzak

Neska gaztea eskaintzen da orduka edo egun osoz, pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. 675555811 - 943085011.

Emakumeak, adinduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanetan lan egingo luke. 620743076.

Etxeko lanak egiteko edo adinduak eta umeak zaintzeko esperientziadun emakumea eskaintzen da. Egunez edo gauez lan egiteko. 699146767.

Neska lan bila dabil, orduka. Etxean bertan biziz ere bai. 669900779.

Emakumea eskaintzen da pertsonak zaintzeko edo garbiketa lanetarako. 628217527.

Neska arduratsua, orduka, atariak edo tabernak garbitzen edo astebukaeretan tabernak garbitzen lan egiteko prest. 651720136 - 943088208.

Goierritarrako iragarki laburrak: hitz bakoitzeko 0,65 euro.

Iragarkia bi aldiz argitaratuko da Goierritarran, behin Goierriko Hitzan eta 7 egunez egongo da www.goierrikohitza.info webgunean.

943 16 00 56

goierritarra@goierrikohitza.info / gh@goierrikohitza.info

ETXEBIZITZAK

errentan hartu

Euskaldun gazte langilea, pisu bila dabil Goierri, alokairuan. Txakurrik eta umerik gabe. 687785985 - 943028575.

salgai

Ataun. Eraikuntza berria: 2 logelako pisua, garajearekin eta trastelekuarekin. 210.400 euro + Beza. LAZKAO INMOBILIARIA.

Beasain. 60 m²ko etxebizitza salgai. Dena berria. Aukera ona. 619441919.

Beasain. Igartzako etxebizitza gunean, 112 m²ko etxebizitza salgai: 4 logela, 2 bainu eta 14 m²ko terraza. Bi autorentzako garajea. 635746967.

Beasain. Hirigunean, eraberitutako 2 logelako atikoa salgai. LAZKAO INMOBILIARIA.

Idiazabal. Eraikuntza berria: 3 logelako etxebizitza. Sukaldea hornitua. 283.000 euro + beza. LAZKAO INMOBILIARIA.

Lazkao. 2 logelako apartamentu polita salgai. Altzariz hornitua, trastelekua. Ikustekoa! 661221252 - 627169821.

Lazkao. Hirigoien kalean, 2 logelako etxebizitza. Igogailua eta trastelekuarekin. 234.000 euro. LAZKAO INMOBILIARIA.

Lazkao. Hirigoien kalean, 2 logelako etxebizitza salgai. Igogailuarekin. LAZKAO INMOBILIARIA.

Lazkao. San Jose auzoan, 60 eta 75 m²ko etxebizitzak. LAZKAO INMOBILIARIA.

Lazkao. Eraikuntza berriak: 1, 2, 3 eta logelakoak. Orobioren eta San Prudentzio auzoan. LAZKAO INMOBILIARIA.

Ordizia. Aita Urdaneta kalean: 3 logela. Guztiz berria. Oso argitsua. LAZKAO INMOBILIARIA.

Zegama. Etxebizitza salgai, 3 logela, komuna, barruko trastelekua, sukaldea eta egongela. Berogailua. Bizitzan jartzeko prest. 652766951

PABILIOIAK

errentan eman

Lazkao. Pabilioia alokairuan, lbabe industriagunean. 336 m² + 168 m². LAZKAO INMOBILIARIA.

GARAJEAK

salgai

Lazkao. San Jose auzoan, garaje itxia salgai. LAZKAO INMOBILIARIA.

IBILGAILUAK

Chrysler Voyager S.E. salgai. M-OU. 652772369.

Opel Frontera 2.3 TDi autoa salgai. Egoera onean. 608243939.

ANIMALIAK

opari

Urtebeteko zakur eme zoragarria oparitzen da. Etxean edukitzeko. 695703471.

salgai

Ardiak arkumeekin, salgai. 666941739.

NEGOZIOAK

errentan eman

Kafetegia alokatzen da Beasainen. Lanean hasteko prest. 666774578.

BESTELAKOAK

salgai

Intxaurrak salgai Ataungo baserri batean. 2,60 euro kilo. Gutxieneko erosketa 5 kg. 943180240. (9:00etatik 10:00etara eta 13:00etatik

15:00etara deitu).

Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera entregatzen da. 615755762.

kontsultak

Tarot kontsultak. 943766214.

*Beasain***Loinazko San Martin eguneko ekitaldiak**

Otsailaren 5ean, Loinazko San Martin eguna ospatuko dute Beasainen. Jarraian duzue egitaraua:

9:30ean: Udal Txistulari bandaren eta musika eskolako bandaren goiz eresia.

9:30ean: Kofradien harrera eta bilkura Ongietorria aho-gozagarriekin.

10:30ean: XXIII. Odolki kofradiaren biltzarra. Kofradien ibilaldia galako jantzita, txistulari dantzari eta poxpolinek lagunduta. San Martinen estatuara iritsi eta lore eskaintza egingo diote. Ondoren ohorezko aurrekoa dantzatuko da.

11:00etan: Meza Nagusia. Andre Mari Zeruratuaren Parroki Elizan.

12:00etan: Kofradiaren XXIII. Kapitularen Ospakizuna eta Ohorezko Kofradiakideen izendapena Loinazko San Martin plazan.

12:00etan: Odolki dastaketa Zubimuzu plazan. Ardura-dunak. Aurtzaka Dantza Taldea.

18:00etatik 21:00etara: 'Bentazaharreko mutiko alaiak' taldeak herriko kaleak girotuko ditu.

*Zegama***Zegama-Aizkorri maratoian izena emateko azken eguna**

Urtarrilaren 25ean bukatuko da VII. Zegama-Aizkorri mendi maratoian izena emateko epea. Gehienez 400 korrikalarik izango dute parte hartzeko aukera. Maiatzaren 25ean jokatu da Europako Txapelketa izango den lasterketa.

*Idiazabal***Herri krosa, urtarilaren 27an**

Idiazabal Kirol Elkarteak antolatuta, XXVIII. herri krosa jokatu da, urtarilaren 27an, Idiazabalen. Goizeko 11etan hasita, benjaminek 680 metro egin beharko dituzte; alebinek 1.200 m. eta infantilek 1.700 m. Kadete eta helduen lasterketa, eguerdiko 12etan hasiko da. Herrian prestatutako ibilbideari itzuliak eman beharko dituzte, 10.412 metro osatu arte.

Izena emateko hiru modu daude. Egunean bertan, 5 euro ordainduta; eta aurrez, dohainik, 943187099 telefonora deituta (Mila, 16:00etatik 20:00etara) eta www.herrikrossa.com webgunean.

*Ordizia***'Urdaneta 500 eta Ordizia bere garaian' bisita gidatua**

2008 Urdaneta urtea da Ordizian, Andres Urdaneta jaio zela 500 urte ospatzen dira. Hau dela, Urdaneta bera eta bere aurkikuntza nagusia den Asiatik Ameriketarako Itzulera Bidea hobeto ezagutzeko asmoz Ordiziako Udalak antolatu duen erakusketara bisita gidatua antolatu du D'elikatzek. Erakusketara bisita osatu asmoz Urdanetaren garaiko Ordizia nolakoa izan zitekeen irudikatzen saiatuko dira Ordiziako kasko historikoko kale eta eraikinetan zehar. "Gure pertsonaia bikain honen eta Ordiziaren historiaren inguruan gehixeago jakiteko aukera paregabea". Bisita gidatua, urtarilaren 30ean, izango da, 17:00etan, Barrenan.

Honez gain, otsailetik aurrera eta erakusketak dirauen bitartean, larunbatero, goizeko 11,30etan, bisita gidatuak egingo dira, doan.

Ordizia

Mintzalagunen kantu afaria

Otsailaren 1ean, Argi Berri elkarteak, bertako bazkideekin, kantu afaria izango dute Mintzalagun taldeetan dabilzanek. Bertan parte hartu nahi duenak, Hitzaron eman beharko du izena. Afaria Udaleko Euskara zerbitzuak ordainduko du eta edaria eta kafea, bakoitzak berea.

Goierri

Ekimen berrien XI. sariketa antolatu du Goiekik

Goiekik, Goierriko Garepen Agentziak, Goierriko Enpresa ekimen berrien XI. sariketa antolatu du aurten ere. Sariketak hiru atal izango ditu.

● **Enpresa ekimen proiektu onena:** 2007. urtean, negozio ideia bati buruz bideragarritasun plana landu duten sustatzaileei zuzendua dago sari hau. Sustatzailearen irudia bultzatu eta eskualdean lana eta aberastasuna sortzea baloratuko da, proiektu berritzaile, sendo eta bideragarri baten bitartez. 9.000 euroko saria dago.

● **Enpresan buruturiko ingurumen proiektu onena:** Goierriin kokaturik dauden ETEei zuzendua dago atal hau. Ingurumenarengan eragina gutxitzea helburu duten inbertsioen finantziatorako laguntza izan nahi du sari honek. 6.000 euro daude zain.

● **Enpresan buruturiko proiektu berritzaile onena:** Ekintza berritzaileak garatzearen ondorioz, enpresa bertan balio erantsia sortzen duten ETEei zuzendua dago sari hau. Eskualdeko ETEetako produktu, prozesu, merkatu, antolakuntza... berrikuntza sustatu nahi du Goiekik. Horretarako, 6.000 euroko saria dago.

Agiriak aurkezteko azken eguna, otsailaren 29a da. Sariari buruzko agiri guztiak www.goierri.org web gunean daude.

Zerain

Aizkolari beteranoei omenaldia

Urtarrilaren 27an, Aizkorpe bailarako 72 urtetik gorako aizkolariei omenaldia egingo zaie Olatza sagardotegian. Hauek dira omenduak: Antonio Otazabal, Antonio Gaztelu, Juanito Apaolaza (Goyena), Gabriel Apaolaza (Goyena), Antonio Goiburu (Gaztelu), Bonifazio Lardizabal (Arrabiola) eta Joxe Larrea. Trikitilariak, aizkora saioa eta bazkaria izango dira.

Legorreta

Otsailak 2: Elkartasunezko talo festa

Otsailaren 2an, arratsaldeko 6,30etan hasita, Santa Agedaren bueltan, elkartasunezko taloak jateko aukera izango da Udalak eta Ugara Guraso Elkartek antolatuta. Festa alaitzeko, herriko bertsolariek koplak saioa eskainiko dute udal pilotalekuan. Ion Lasa, Odei Lopez eta Ibar Uribe izango dira bertsolariak.

Ordizia

Argi Berri mus azkarra

Otsailaren 9an, arratsaldeko 4,30etan, jokatu da Ordiziako Argi Berri Elkartean XXXI. Mus txapelketa azkarra. 4 erregetara jokatu da. Bikote bakoitzak 40 euro ordaindu beharko ditu.

Bikote irabazlearentzako 1.500 euro eta txapela daude zain. Bigarren bikoteak 800 euro jasoko ditu; hirugarrenak 400 euro eta laugarrenak 200 euro. Bosgarren eta seigarren bikoteentzat, arkume bana eta bina txuleta izango dira.

Harpidetza txartela

Egin ☒ bat aukeratutako kaxan



GOIERRIARRA



GOIERRIARRA + GOIERRIARRA



HITZA



HITZA

Urteko kuotak:



GOIERRIARRA

26 euro



HITZA

65 euro



GOIERRIARRA + GOIERRIARRA

70 euro

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria: NAN:

Telefono zenbakiak:

Kontu zenbakia(20 digitu):

Bidali txartel hau: Goierritarra, Urbialde plaza 7 behe, Beasain



GERTU
ENPRESA AHOLKULARIAK - ABOKATUAK

San Inazio, 5 - 20200 BEASAIN
Tel: 943 16 21 92 Faxa: 943 88 36 33
gertu@gertuasesores.com

Arraiak parrilan

943 65 21 76

ABALTZISKETA

ZALBIDE

TOLARE
SAGARDOTEGIA





Misioak Ormaiztegin 1946an

Ander Iurritak utzi digun argazki hau Ormaiztegin inoiz egin den jendetsuena izango da ziurrenik. Bertan agertzen diren ia 400 pertsonetatik gehienak ormaiztegitarrak badira ere, tartean badaude Gabiriako, Itsasoko eta Beasaingo Salbatore auzoko batzuk ere. Denen izenak jartzea ezinezkoa denez, hauek dira aurrealdean daudenak:

Lehenengo ilaran ezkerretik eskuinera: Florita Eskisabel, Pakita Iurrita, Angeles Imaz, Arantxa Eskisabel, Maria Luisa Berasategi (Sosoaga Txiki), Jeronimo Sarriegi (apaiza) Gaspar Intxausti (apaiza), Ramon Etxeberria (apaiza), Justo Mendarozketa (alkatea), Rexurrezion Elozegi (zinegotzia), Karlos Leturia (Zinegotzia), Joxe Irizar (zinegotzia), Pako Julia eta Joxe Pildain.

PSIKOLOGI KLINIKOA

Jose Ramon Pato Prieto
 Psikologian lizentziatua
 Elkargokide zenbakia: E-2644
 RPS: 420/01
AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

**Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak**

biok
 zerbitzuak

Tel 943 88 44 00
 Faxa 943 80 51 27
www.biokzerbitzuak.com
 Ordizia Goierri, 12

kudeaketa
 fiskala
 kontablea
 merkatala
 laborala

**GRAFICAS
EGUZKI**
 INPRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 17
 Tel 943 88 94 82
 Faxe 943 88 60 44
 BEASAIN

Oskarbi Oinetakoak
 Nagusia 34
 Tel 943 881 944
 Ordizia

Oskarbi Oinetakoak
 Nagusia 34
 Tel 943 884 104
 Beasain

Oskarbi Oinetakoak
 Sekundario Esnaola 8
 Tel 943 721 978
 Zumarraga

Oskarbi Oinetakoak
 Erdiko Kallu
 Tel 943 711 804
 Arrasate

**KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN**
**PLOTTER LANAK ETA
PLANOEN KOPIAK**
 ☎ 943 02 73 58
 Faxe: 943 02 79 39
 San Inazio, 5 BEASAIN

BARANDIARAN
zeramikak

ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJA

SEMPERE KALEA, 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com

MULTIOPTICAS
1.A ZERBITZU OPTIKOETAN
www.multioplicasgipuzkoa.com

Bonardi
betaurrekoak
doan
kristalak barne

konbi
eskaintzak
MULTIOPTICAS

R.P.S. Nº 190/04 LLG.

Beslay montura eta lente graduatu monofokal edo progresiboak erositak, Bonardi bildumako betaurreko graduatuak opari, Beslay lente graduatu 1,5 monofokalak edo progresibo (disainu berri) organiko gogortuak graduazio berarekin. Promozio baliagarria 08/01/07tik 08/02/29ra arte.

J. Carlos Guerra 1 Tel. 943 79 29 95 ARRASATE	Ibargarai 16 Tel. 943 76 15 75 BERGARA	C/ Nueva 15 - GROS Tel. 943 32 66 49 DONOSTIA	Bidebarrieta 2 Tel. 943 20 05 22 EIBAR	Koldo Mitxelena, 7 Tel. 943 51 78 11 ERRETERIA	Mendibil M. G. Tel. 943 63 99 01 IRUN	J.M. Barandiaran Enp. Tel. 943 88 99 88 ORDIZIA	San Frantzisko 23 Tel. 943 69 84 70 TOLOSA
--	---	--	---	---	--	--	---

INAUTERIAK 2008



MOZORRO DENDA

Elbarrena industrialdea
ZALDIBIA
Tel.: 943 888 232
www.jaiakdenda.com
jaiak@jaiakdenda.net

Ordutegia:

Astelehenetik larunbatera: 10:00etatik 13:00etara
15:00etatik 20:00etara

Igandeetan: 10:00etatik 13:00etara

